

GURASOENTZAT MANUALA
“EDUCAMOS” PLATAFORMA

1. AURKEZPENA

“Educamos” plataforma aurkeztu nahi dizugu. Honen bidez zure seme-alaben jarraipen akademikoaren kudeaketa hobetu nahi dugu. Web tresna bat denez, interneta duen edozein ordenagailutik sartu ahal izango duzu. Horretarako guraso bakoitzari **erabiltzailea** eta **pasahitza** emango zaizue.

“Educamos”-en zure seme-alaben, hutsegiteen, atzerapen, notak, azterketak, ordutegiak, lanen eta azterketen daten informazio eguneratua aurkituko duzu. Orain arte seme-alaben hutsegiteak, justifikatzeko oharra bidali edo telefonoz deitzen zenuen. Hemendik aurrera, berriz, plataformaren bidez justifikatu ahal izango duzu hutsegitea. Ondoren hutsegite hori zuzenean irakaslearen eguneko zerrendan agertuko da.

Plataforma hau udan ezarri genuen ikastetxean, oraindik ez dago erabat konfiguratuta. Barkamena ere eskatu behar dizugu datuetan edota itzulpenetan akatsak egon daitezkeelako. Pixkanaka joango gara dena osatzen.

2. PLATAFORMAN SARTZEKO

Plataforman sartzeko www.floreaga.com-en aurkituko duzun ikonoan klikatu behar duzu.

Sentsibilizazio Kanpaina

Eskola kirol kontseiluak aurkezturiko sentsibilizazio kanpainaren dokumentua irakurri dezakezue bertan. ZAINDU JARRERAK! Eskerrik asko irakurri dokumentua. [gehiago irakurri](#)

Feevy zerbitzu librea da [eskuratu zure iturriak](#)

Gaur abenduak 3, larunbata denez, Alai Batza eduki dugu. Gaurkoan AB Champions Leagueko final handia jokatu da. Astero bezala tailerra egiteko aukera izan dugu. Argazkiak eusteko animalia politak egin dugu plastilinarekin. 19:00etan, gure adimena ... [gehiago irakurri](#)

fr Azken Argazkiak



Sartzeko ikono honetan klikatu

11°C	11°C	12°C	13°C
8°C	5°C	3°C	4°C



Alai Batza

Feevy zerbitzu librea da [eskuratu zure iturriak](#)




















Lehendabiziko aldiz sartzen zarenean **pasahitza aldatzera derrigortuko** zaitu. Honelako pantaila agertuko zaizu:

Erabiltzailea eta pasahitza alda ditzakezu. Gogoratzeko erraza izango zaizuna jartzea gomendatzen dizugu, era berean inori ez esatea eta inoren eskura ez jartzea ere.


“Pasahitzaren oroigarria” zer da? Egunen batean pasahitza ahaztuko balitzaizu sistemak zuk emandako email helbidera korreo bat bidaliko dizu pasahitz berriarekin, baina segurtasun kontuak direla eta horretarako berak zuk pantaila honetan idatzitako galdera egingo dizu, eta zuk pantaila honetan idatzitako erantzuna eman beharko duzu.

Lehendabizi sartzen garenean **bakar-bakarrrik** erabiltzailea/pasahitza eta galdera/erantzuna alda ditzakegu. Ezingo ditugu datu gehiago aldatu, bestelako datuak aldatzeko berriz sartzean egin beharko dugu.

Hurrengoetan agertuko zaizun lehen pantaila hauxe duzu. Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko duzu.

Kontu handiz ibili beharko dugu “pasahitza gogoratu” agertzen denean **EZ** esateko. Baietz esanez gero, ordenagailu horretan ondoren datorrenak gure datuekin sartu ahal izango du eta.


Hurrengo pantailan honakoa agertuko zaizu:



3. ORDUTEGIA, LANAK, AZTERKETEN DATAK IKUSTEKO

“Ordutegian” sartzean zure seme-alaben klaseak, hutsegiteak, lanak eta azterketen datak ikus ahal izango dituzue.

Agertuko diren ikonoak hauek dira:



Hasierako pantailara joan nahi dugun bakoitzean goian dagoen ikastetxearen ikonoaren gainean klikatu besterik ez dugu.

4. AZTERKETA ETA EBALUAZIO NOTAK IKUSTEKO

Azterketa edo proben notak ikusteko “KALIFIKAZIOAK” gainean klikatu behar da. Bertan irakasgaien zerrenda eta azterketa notak agertuko dira. Ebaluazio notak hau bukatu eta egun jakin bat arte ez dira agerian jarriko. Hori dela eta egun hori iritsi arte ez dituzu ikusiko.

Bertan aurkituko dituzun ikonoak hauek dira:

The screenshot shows the 'Noren kalifikazioak' interface. At the top, there's a search bar and a dropdown menu for 'Ebaluazioa: 1. Ebaluazioa'. A red arrow points to this dropdown with the label 'Ebaluazioa aukeratu'. Below this is a table with three columns: 'Arloa / Irakasgaia', 'Kalifikazioa', and 'Jazoaerak'. The 'Arloa / Irakasgaia' column lists various subjects like 'Tutoria', 'Euskararen literatura', 'Gaztelania eta literatura', 'Azterketa notak: Ingelesa', 'Matematika', 'Naturaren Zientziak', 'Arte Zientziak, Geografia eta Historia', 'Gorputz Hezikuntza', 'Teknologia', 'Hizkuntza eta Ikusizkoen Hezikuntza', 'Musika', 'Erlijioa', and 'Informatika'. A red arrow points to the 'Azterketa notak: Ingelesa' row with the label 'Koaderno digitala. Proben notak agertuko dira.'. Another red arrow points to the 'Irakaslearen oharrak' (Teacher's notes) column with the label 'Irakaslearen oharrak'. A third red arrow points to the 'Kalifikazioa' column with the label 'Irakasgai bakoitzaren notak'. A fourth red arrow points to the 'Jazoaerak' column with the label 'Jazoaerak: H: hutsegitea B: Berandu'. At the bottom, there's a section for 'Tutorearen oharrak' (Tutor's notes) with a text box labeled 'Tutoreak idatz ditzakeen oharrak'.

Koaderno digitalaren ikonoaren gainean klikatutakoan egindako azterketa eta frogen notak agertuko dira.

The screenshot shows the 'Koaderno' (Digital Notebook) interface. It displays a list of subjects and their corresponding grades. The subjects are: LITERATURA 1 (6,5), LITERATURA 2-3 (1), IDAZLANA 1 (5,5), IDAZLANA 2 (6,9), LIBURUA 1 (4,8), LIBURUA 2 (1,7), LEXIKOA 1 (4,1), LEXIKOA 2-3 (5), ORTOGRAFIA 1 (6,3), and ORTOGRAFIA 2-3 (-). A red arrow points to the 'IDAZLANA 1' row. At the bottom right, there's a button labeled 'Itxi' (Close).

5. HUTSEGITEAK IKUSI, GERTATU DIREN EDOTA GERTATUKO DIREN HUTSEGITEAK JUSTIFIKATU

“JAZOERAK” ikonoan klikatutakoan gertatutakoak ebaluazioka ikus ditzakegu, baita “jazoera” motaren arabera ere.

Gurasoek seme-alaben egun osoko, klase baten edo klase batzuen hutsegiteak justifikatu beharko dituzte. Horretarako “JUSTIFIKATU” ikonoaren gainean sakatu behar da.

Adibidez,

1. egoera.

Eman dezagun gaur arazoaren 28a dela eta seme-alaba azaroaren 25ean ez zela klasera joan ustekabe bat izan zuelako. “JUSTIFIKATU” ikonoa klikatu eta gero “GERTATUTAKO JAZOERAK” aukeratu behar duzu. Bertan ageriko diren hutsegiteak aukeratu, justifikatzeko arrazioa idatzi eta ondoren **justifikatu** botoia klikatu.

2. egoera.

Demagun gaur azaroaren 29a dela eta seme-alaba abenduaren 2an ez dela egun osoan joango klasea sendagilearengana joango delako, edo egun batzuetan gaixo egongo delako. Aurrena “JUSTIFICAR” klikatu eta ondoren “FALTEN JUSTIFIKAZIOA, DATA KONTUAN HARTUTA”. Ondoren faltako den azken eguna aukeratu “**amaiera data**” eta gero faltaren lehen eguna “**hasiera data**”. Egun bakarra izanez gero **data berbera** izango da. “Egun osoa” laukia aukeratu “**iruzkina**” bete, faltaren arrazioa idatziz eta segidan “Justifikatu” aukeratu.

Hau egindakoan beste pantaila hau agertuko da, bertan “bat nator ____ ez egoteak justifikatzearekin” baieztatu behar da horixe aukeratuz. Gero “berretsi” sakatu behar da.

3. egoera.

Demagun gaur azaroaren 29a dela eta seme-alaba ez dela abenduaren 2an lehenengo bi orduetan klasera joango.

Kasu honetan 2. egoeraren prozedura jarraitu behar dugu, baina ez dut "egun osoa" aukeratu. Pantaila berrian klaseak bi zutabetan agertuko dira. Ezkerrekoan noiztik eta eskuinean noiz arte aukeratu beharko dut. beste guztia 2. egoeran bezala egin beharko da.

6. KONTUAN HARTU

- **Kontuz pasahitzekin.** Oso garrantzitsua da inori ez esatea gure pasahitza, ezta beste batek eskuratzeko moduan lagatzea ere.
- Ebaluazio notak ofizialki argitaratzen direnean agertuko dira.
- Azterketaren notak irakasleak plataforman sartu bezain laster agertuko dira.
- Hutsegiteak, berandu iritsitakoak, eta bestelako gertakariak egunero agertuko dira.
- Plataformatik justifikatuz gero, ez da beharrezkoa izango telefonoz edo oharrez justifikatzea.
- Pixkanaka azterketaren oharrek paperean jasotzen jarraitu nahi al duzuen galdetuko dizuegu.
- Pantaila nagusiko **"Nire datuak"** ikonoan sakatuz erabiltzailea eta pasahitza, telefono zenbakia eta bestelako datuak alda ditzakezu. Datu hauek eguneratuta izatea oso garrantzitsua da ikastetxean zurekin harremanetan jartzeko erabiliko datuak direlako.
- Plataforma hau "firefox" nabigatzailearen bidez erabiltzeko dago prestatuta.
- Abenduan zehar plataforma DBHko ikasle eta gurasoei irekiko zaie, LHn seme-alabak baldin badituzu haien jazoerak eta notak ere agertuko zaizkizu.
- Pasahitza galduz gero, idazkaritzan berria eska daiteke.
- Hasieran honetan eta ikasturtean zehar izan ditzakegun hutsengatik barkamena eskatu nahi dizuegu.